



IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

IHP

(2018-2021)

IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

IHP

(2018-2021)

AURKIBIDEA

1.	IKASTETXEKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA	3
1.1.	Ikastetxearen deskribapen fisikoa eta aipamen historikoa.	3
1.2.	Ikastetxearen dokumentu nagusiak.....	4
1.3.	Parte hartze- eta koordinazio-organoak.	4
1.4.	Zuzendaritzaren organigrama.....	5
1.5.	Irudi Korporatiboa eta kudeaketa tresna nagusiak.....	6
2.	PRINTZIPIOAK, BALIOAK ETA NORTASUN-EZAUGARRIAK	7
3.	HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK	7
4.	ILDO ESTRATEGIKOAK, HELBURUAK eta EKINTZAK / METODOLOGIA.....	9
5.	IHPren eta IKASTETXEAREN BESTE DOKUMENTUREN ARTEKO HARREMANA.....	12
6.	IHPren IRAUNALDIA ETA BERRIKUSPENA	13

1. IKASTETXEKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA

IES Xabier Zubiri Manteo BHI Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzapean dagoena.

1.1. Ikastetxearen deskribapen fisikoa eta aipamen historikoa.

1980ko urriaren 15ean Gros-eko Batxilergo Institutuak bere ateak ireki zituen Donostiako Gros-eko auzoan, Joxe Migel Barandiaran kaleko 10-12 zenbakietan hain zuzen ere, bere eskaintza nagusia Batxilergo Bateratu Balioanitza eta Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea hezkuntza etapak zirelarik. Ondoren, "Xabier Zubiri Institutua" izena hartu zuen. Bestalde, Manteo Lanbide Heziketako Institutua, Gros-eko Alejandria kaleko 2. zenbakian kokatua, 1987ko abuztuaren 6an sortu zen. Hasieran Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen ziren, eta Hezkuntza Sailak bultzatutako zenbait erreforma ezagutu zituen. Esaterako, Ikasketa Ertainetako Erreforma, Administrazio eta Kudeaketako Batxilergo Esperimentala, eta Administrazio Familiako Heziketa Moduluak.

Aipatutako bi Institutu hauek bat egin zuten 1998. urtean, Bigarren Hezkuntzako Institutu berri bat sortuz: IES Xabier Zubiri Manteo BHI. Bertan, gaur egun, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Zereginen Ikaskuntzako Gela hezkuntza etapak irakasten dira Manteo eraikinean, eta Batxilergoak eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak berriz Zubiri eraikinean. Honetaz gain, Hezkuntza ez Arautua ere eskaintzen da.

2008an Lanbide Heziketako araudiak izandako aldaketaren ondorioz, hazkunde nabarmena gertatu zen, eta espazioaren beharraren aurrean, 2014tik Gros-eko Zemorria Kalean kokatuta dagoen "Okendo" eraikina gehitu zen.

Manteo eraikinean honako instalakuntzak ditugu besteak beste:

- Gela arruntak ekipamenduarekin.
- Gela bereziak: informatika gelak, teknologia-tailerrak, plastika-gela, irrati-prentsagela, musika-gela, baratza, laborategia, sukaldea, ikus-entzunezko gela, laguntza-gela, ZIG gela...
- Liburutegia.
- Soinketa-gela.
- Jangela.
- Patioa, frontoia eta kirol-guneak.

Okendo eraikinean honako instalakuntzak ditugu besteak beste:

- Gela arruntak ekipamenduarekin.
- Gela bereziak: informatika gelak, erakustokiak, Merkataritza-gela, erabilera ugariko gelak...
- Patioa.

Zubiri eraikinean honako instalakuntzak ditugu besteak beste:

- Gela arruntak ekipamenduarekin.
- Gela bereziak: informatika gelak, erakustokiak, Enpresa simulatuaren gela, informatika-tailerra, biologia-geologia laborategiak, erabilera ugariko gelak...
- Liburutegia / erabilera anitzeko aretoa
- Patioa eta kirol-guneak.


1.2. Ikastetxearen dokumentu nagusiak.

Ikastetxearen ibilbidea, filosofia eta lan egiteko moduak biltzen dituen dokumentu nagusia HEZKUNTZA PROIEKTUA da. Honen parte dira honako dokumentuak:

- **AJA** (Antolakuntza eta Jarduera Araudia): bertan ikastetxeko antolakuntza eta araudia azaltzen da.
- **Proiektu Curricularra**: Bertan ikasturteko ikasgai guztien programazioak jasotzen dira.
- **Hizkuntza Proiektua**: Bertan hizkuntzen erabilerari eta haien ikas-irakaskuntzei lotutako erabakiak jasotzen dira, eta hizkuntzen trataerari koherentzia ematea du helburu.
- **IUP** (Ikastetxeko Urteko Plana): Bertan ikasturte bakoitzean garatuko diren Ikastetxearen ildo estrategikoak azaltzen dira, eta hauei lotutako ekintza-proiektuak.

1.3. Parte hartze- eta koordinazio-organoak.

Eskola Komunitatearen edozein partaidek (ikasle, irakasle, guraso eta ez irakasle) du honen zereginean parte hartzeko aukera eta ardura. Honetarako gobernu organo gorena eratuta dago, Ordezkaritza Organo Gorena (OOG) deritzona. Honen sorrera, osaketa eta araudia AJAn (Antolakuntza eta Jarduera Araudia) azalduta dago. Bere egitura hurrengoa da:



Talde guztiak 2-4 urteren buruan berritzen dira, Zuzendaritza izan ezik. Honetarako, OOG-rako hauteskundeak ospatzen dira.


Zuzendaritza taldea honela osatuta dago:

- Zuzendaria.
- Ikasketa burua
- Idazkaria (ahotsarekin baina botorik gabe).

Ikasleen taldea DBHko 3 ikaslerekin, Batxilergoko 2 ikaslerekin eta LHko 2 ikaslerekin osatzeko ahalegina egingo da.

Gainera, talde bakoitzak bere antolakuntza egitura du:

- Gurasoen taldeak elkarte bat sortua du, “Zemoria Guraso Elkarte” deritzona. Talde hau autonomoa da.
- Ikasleen taldea ikasleen delegatuek ordezkutzen dute. Hauen funtzioak Ikasturtea antolatzeko moduari buruzko Ebazpenean adierazita daude.
- Irakasleen Klaustroa arlo edo irakasgai bakoitzari dagokion Departamentuetan antolatuta dago. Departamentu bakoitzak Departamentu buru bat du. Funtzionalki departamentuak bi Ikasketa bururen ardurapean antolatzen dira; alde batetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoari dagokiona; bestetik, Lanbide Heziketarena. Ikasketa buruak eta departamentu buruak aldiroko bileren bidez koordinatzen dira.
- Ez Irakasleen taldea Ikastetxearen Zuzendaritzapean antolatuta dago, Idazkaritzapean hain zuzen ere:



1.4. Zuzendaritzaren organigrama.

Ikastetxearen Zuzendaritzaren antolakuntzari dagokion organigrama hurrengoa da:




1.5. Irudi Korporatiboa eta kudeaketa tresna nagusiak.

Logoak:




Institutuak egin du bere irudi korporatiboa biltzen duen dokumentua (DK010104 Irudi Korporatiboa). Honetan, besteak beste, Ikastetxeko logotipoa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko logotipoa, karpeten azalak, ordenagailurako fondoak eta proiektu, txosten, eskuliburu eta abarretan erabiltzeko portadak... ereduak biltzen dira.

Bestalde, Interneten zintzilikaturik dugu gure web orria, (www.zubirimanteo.com); bertan biltzen da institutuari buruzko informazioa.



Ikastetxeak barneko informazioa kudeatzeko SITEa du antolatua



2. PRINTZIPIOAK, BALIOAK ETA NORTASUN-EZAUGARRIAK

- Publikoa, akonfesionala eta ikasketa-ibilbide desberdinetan oinarritutako ikastetxe euskalduna gara.
- Ikasleen garapen integrala sustatzea asmo dugu; bertan arlo intelektuala, fisikoa eta afektibo-sozialaren garapenarekin bizikidetzarako beharrezkoak diren balioak zainduz eta garatuz.
- Ikastetxeko komunitatea osatzen dugunon jatorria, izaera eta egoera anitza kontuan hartu eta errespetatzen dugu, berdintasuna bultzatuz.
- Ikasleen sormena eta ekintzailetasuna metodologia berritzaileekin uztartzen duen ikastetxea izatea dugu helburu. Ildo horretan, norbere ekintzen erantzule izateko behar diren tresnak landuz, ikasleak beren hezkuntzaren protagonista bihurtu nahi ditugu.
- Alderdi akademikoekin batera etengabeko jakin-minaren bultzatzaile izanik, lan munduarekin harreman estua lantzen dugu, horretarako prestakuntza zehatza eskainiz.
- Gure heziketa konpromiso etikoan oinarritzen da: erantzukizuna, gaitasun kritikoa, autonomia, errespetua eta elkartasuna bezalako balioak sustatuz.
- Ikasle bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitzen den heziketa bermatzen duen ikastetxea gara, banakako ezberdintasun eta heldutasun erritmo desberdinetara egokitzen diren neurri malguak eskaini behar dituen.
- Europara eta mundura irekita gaude, eleaniztasuna bultzatuz.
- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua egokitzea asmo dugu, informazio eta komunikazio teknologiak egunerokotasunean txertatuz.

3. HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK

Helburu orokorrak:

Ikasleak bere irakaskuntza prozesuaren eragile izan behar du, bere lorpenak eta porrotak onartuz, eta irakasleek ikasteko, arrazoitzeko eta beren kasa erabakiak hartzeko laguntza eskainiko diote.

Ikasleak egunerokotasunean, bakarka nahiz talde lanean, autonomia, proaktiboa eta kolaboratzailea izan behar du: ikaslearen ardura sustatu eta baloratu behar da.

Jokabide baztertzailleak ekidin: balio etikoak eta oinarrizko askatasunak errespetatzen dituen heziketa, eta sexuzko, gaitasunezko, arrazazko, ideologiazko edo erlijiozko jokabide baztertzailleak gaitzesten dituen.

Iritzi desberdinak errespetatu eta hitzaren bidez elkar ulertzeko eta erabakiak hartzeko gai diren pertsonak hezi.

Euskararen erabilera zabaldu: egunerokotasunean, eskola ordutan, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere, hezkuntza etapa bakoitzaren berezitasunetara egokituz.

Barne komunikazioa hobetu: eskola komunitatea osatzen dugun eragileon arteko kohesioa lortzeko.

Kanpoko komunikazioa indartu: ikastetxea, gizarte eragile den neurrian bere inguru hurbilean txertatu behar du, auzoko ekintzetan parte hartuz, sare sozialetan bere presentzia gehituz, erakundeekin harremanak sendotuz, ..

Atzerriko hizkuntzen ezagutzak duen garrantziaz ohartu.

Helburuak etapaka:

- **DBH**

- ✓ **Euskararen erabilera bultzatu-indartu:** bai gela barruan, bai eskolako gainontzeko esparruetan.
- ✓ **Metodologia aldaketa:** diziplina barruko gaitasunak eta zeharkakoak garatzeko eta hobetzeko.
- ✓ **Familien eta ikasleen partaidetza sustatu.**
- ✓ **Etengabeko formakuntza:** bai ikaslearena bai irakaslearena.
- ✓ **Irakasleen arteko koordinazio eraginkorra lortu.**
- ✓ **Konpetentzia digitala txertatu eguneroko jardueretan.**

- **BATXILERGOA**

- ✓ **Euskararen erabilera bultzatu-indartu.** bai gela barruan, bai eskolako gainontzeko esparruetan.
- ✓ **Metodologia aldaketa:** gaitasun orokorrak eta berariazkoak garatzeko eta hobetzeko.
- ✓ **Etengabeko formakuntza:** bai ikaslearena bai irakaslearena.
- ✓ **Konpetentzia digitala txertatu eguneroko jardueretan.**

- **LANBIDE HEZIKETA**

- ✓ **Metodologia aldaketa (PBL-Proiektuak, ETHAZI...):** gaitasun orokorrak eta berariazkoak garatzeko eta hobetzeko.
- ✓ **Nazioartekotasuna eta atzerriko enpresekin harremanak zabaldu eta indartu.**
- ✓ **Bertako enpresa eta erakundeekin harremanak estutu:** FCTak, Heziketa Duala eta lankidetzak zerbitzu desberdinak eskainiz.
- ✓ **Etengabeko prestakuntza:** bai ikaslearena, bai irakaslearena eta lan merkatuaren eskaerei erantzuteko langile eta langabetuei bideratua.
- ✓ **Ekintzailetasuna sustatu:** gizartearen aldaketetara egokituz.

4. ILDO ESTRATEGIKOAK, HELBURUAK eta EKINTZAK / METODOLOGIA


Helburuak lortzeko ondorengo ildo estrategikoak landuko ditugu hurrengo 4 uteetan.

ILDO ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	EKINTZAK / METODOLOGIA
<ul style="list-style-type: none"> Ikasleen garapen integrala sustatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleak bere irakaskuntza prozesuaren eragile izan behar du, oinarrizko eta berariazko konpetentziak bereganatuz. 	<p>Metodologia bidez</p> <ul style="list-style-type: none"> Tutoretza aurrera eraman, irakasle taldearen erantzukizuna eta koordinazioarekin. Ikasgaien edukiak bereganatu eta errealitatearekin lotu Prozedurak arrazonomenduetan oinarritu. Arazo-egoera batetik abiatuta landu irakaskuntza. Prozesuan zehar behar diren egokitzapenak egingo dira. Egindakoak ebaluatu eta hobekuntzak egiteko proposamenak aurkeztu. Gelen antolaketa fisikoa eta dinamika berrikusi, malgutasunari aukera eman. Konpetentziak garatzerakoan, irakasleak ikaskuntza-prozesuak diseinatu, planifikatu, antolatu, estimulatu, lagundu, ebaluatu eta bideratu egingo ditu.
	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleak egunerokotasunean, autonomia, proaktiboa eta kolaboratzailea izan behar du. Ikaslearen ardura sustatu eta baloratu egin behar da. 	<p>Metodologia bidez</p> <ul style="list-style-type: none"> Erronketan eta proiektuetan oinarritutako irakaskuntza diseinatu. Irakasleak emandako jarraibideak aintzat hartuta, ikasleak erronkari era sortzailearekin erantzuna emateko gai izan behar du. Irakaskuntza metodologia berrietara egokitu eta dagokion prestakuntza plana antolatu. Bakarkako eta taldeko lana uztartu. Diziplinen-irakasgaien arteko integrazioa landu. Arazo-egoera batetik abiatuta landu irakaskuntza. Prozesuan zehar behar diren egokitzapenak egingo dira. Egindakoak ebaluatu eta hobekuntzak egiteko proposamenak aurkeztu.
	<ul style="list-style-type: none"> Iritzi desberdinak errespetatu eta hitzaren bidez elkar ulertzeko gai diren pertsonak hezi. 	<p>Eguneroko eginkizunetan</p> <ul style="list-style-type: none"> Komunikaziorako gaitasuna landu, bakoitzak bere ideia azaltzeko, eta besteena onartzeko gai izateko. Bizikidetzeta plana osatu.

<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeko komunitatea osatzen dugunon jatorria, kultura, izaera eta egoera anitza kontuan hartu eta errespetatzen dugu, berdintasuna bultzatuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Jokabide baztertzailak ekidin: balio etikoak eta oinarrizko askatasunak errespetatzen dituen heziketa, eta sexuzko, arrazazko, gaitasuneko, ideologiazko edo erlijiozko jokabide baztertzailak gaitzesten dituenak. Tolerantziatzeko eta errespetuzko giroa sortzea hezkuntza komunitateko kide guztien artean, gatazkak elkarriketaren eta parte hartze arduratsuaren bidez erabakiz. Pertsona bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu eta aukera berdintasuna bermatu. Kulturartekotasuna indartu eta sustatu. 	<p>Eguneroko eginkizunetan</p> <ul style="list-style-type: none"> Orientazio plana osatu: orientazio departamentuaren gidaritza ezinbestekoa da, eta honetarako jarduera desberdinak antolatuko ditu. Eguneroko eginkizunetan oinarrizko giza balioak kontuan izan, jarrera neutroak saihestuz. Jokabide baztertzailak ezabatzeko egokiak diren jarduerak programazioetan txertatu. Aniztasunaren trataerari buruzko plana egin. Bizikidetza plana osatu. Inklusibitatea garatzeko batzorde bat antolatu. Kulturartekotasuna oinarrizko gaitasun bezala landu.
<ul style="list-style-type: none"> Europara eta mundura irekita gaude, eleaniztasuna bultzatuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Atzerriko hizkuntzen ezagutzak duen garrantziaz ohartu. Eleaniztasuna bultzatu, euskara ardatz hartuta. Nazioartekotasuna eta atzerriko ikastetxe eta enpresekin harremanak zabaldu eta indartu. 	<ul style="list-style-type: none"> Irakasgaiak atzerriko hizkuntzaren batean garatzeko aukera ireki. Erakunde desberdinek deitzen dituzten Europar programetan parte hartu (Erasmus +, Eskola trukeak, ...).
<ul style="list-style-type: none"> Informazio eta komunikazio teknologiak landu, irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesuetan txertatuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Konpetentzia digitala eguneroko jardunaldietan txertatu. Ikasleak konpetentzia digitala eta mediatikoa eskuratu behar ditu alfabetatze funtzional osoa bermatzeko 	<ul style="list-style-type: none"> Arlo guztietan ditugun baliabide digitalei ahalik eta erabilpen zabalena eman. Konpetentzia digitala garatu, ahalik eta modu etikoenean eta arduratsuenean erabiliz. Irakasleen konpetentzia digitala sustatu.
<ul style="list-style-type: none"> Alderdi akademikoekin batera etengabeko jakin-mina bultzatu eta lan munduarekin harreman estua lantzen dugu, horretarako prestakuntza zehatza eskainiz. 	<ul style="list-style-type: none"> Orientazio profesionala bideratu etapa guztietan. Bertako enpresa eta erakundeekin harremanak estutu. Etengabeko prestakuntza: bai ikaslearena, bai irakaslearena, eta lan merkatuaren 	<ul style="list-style-type: none"> Irtenbide profesional desberdinen informazio eguneratua zabaldu ikasleei eta familiei. Lantokiko Prestakuntzak, Heziketa Duala eta lankidetza zerbitzu desberdinak eskaini. Profesionaltasun ziurtagiriak tramitatu, bideratu eta ziurtatu. Ekintzaitasuna sustatu eta Urrats bat programarekin proiektuak ahalbideratu.

	eskaerei erantzuteko langile eta langabetuei bideratua.	<ul style="list-style-type: none"> Hobetuz eta Lanbideko programen bidez, langile eta langabetuen trebakuntza iraunkorra bermatu.
<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxe euskalduna. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskara gure hizkuntza da. Euskara ikasketa hizkuntza izateaz gain, elkarbizitzarako hizkuntza da, eta hezkuntza komunitatearen nahiari erantzuten dio. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen normalkuntza planean zehaztutakoa gauzatu. Hizkuntza Proiektuak zehaztutakoa gauzatu. Irakasle guztiak hizkuntza irakasleak izan daitezen, "euskara" hizkuntzaren tratamendua finkatu.
<ul style="list-style-type: none"> Eskola komunitatea indartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Eskola komunitateko partaide guztien koordinazioa, inplikazioa eta konpromisoa sustatzea, eta gauzatzea. Inguruko auzo, udaletxe, erakunde eta enprekin harremanak sortzea eta sendotzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Elkarkidetza bultzatzen duen proiektuak garatu. Auzoko ekimenetan parte hartu. Erakunde desberdinekin proiektuak garatu.
<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxearen antolakuntza eta koordinazioa hobetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Informazio-transmisio horizontala eta bertikala bermatzea. Mintegien eta zuzendaritzaren arteko koordinazioa sakontzea. Baliabideak metodologia berrietara egokitzea. Irizpide pedagogikoak aztertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Harrera plana berrikusi eta eguneratu. Ebaluazio bilerei etekina ateratzeko informazioa alde aurretik bildu. Azterketa/kontrolen koordinazioa geletan dauden egutegietan oinarritu DBH eta LHn. Mintegi eta zuzendaritzaren arteko bileretan, informazioa emateaz gain, alderdi pedagogikoak landu.
<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza planifikatzea 	<ul style="list-style-type: none"> Irakasleen etengabeko prestakuntza gauzatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeak berak prestatutakoetara eta beste erakundeetatik eskainitakoetara joatea ahalbidertu (Berritzegune, Irale, Prest Gara, Tknika, Ikastetxe artekoak, KEI-IVAC, ...) ikastetxearen beharren arabera.

5. IHPren eta IKASTETXEAREN BESTE DOKUMENTUREN ARTEKO HARREMANA



6. IHPren IRAUNALDIA ETA BERRIKUSPENA

IPHa indarrean egingo da Eskola kontseiluak behin onartuz gero, 4 urteko iraunaldia izango delarik, 2017-2018 ikasturtetik hasi eta 2020-2021 ikasturte arte.

- 2017-2018: indarrean sortuko da..
- 2018ko maiatzean gogoeta egingo da bere jarraipenaz. Horretarako batzorde bat osatuko da departamentu bakoitzeko partaideekin.
- IHPren berrikuspena 4 urte ondoren egingo da, 2020-2021 ikasturtean alegia.